

BIZTANLERIAREN ETA ETXEBIZITZEN ZENTSUAK 2001
EMAITZEN AURRERAPENA
CENSOS DE POBLACIÓN Y VIVIENDAS 2001
AVANCE DE RESULTADOS

PRESENTACIÓN

Con este volumen EUSTAT inicia la serie de publicaciones correspondientes a los Censos de Población y Viviendas de 2001, cuya fecha de referencia se sitúa en el 1 de noviembre de 2001.

Esta operación, en la que participa EUSTAT junto al Instituto Nacional de Estadística, las Diputaciones Forales y los Ayuntamientos de los tres territorios históricos, resulta ser un conjunto amplio de tareas que requiere un gran esfuerzo para poder obtener una información derivada amplia y compleja en el plazo más corto posible de tiempo, y, a la vez, con el mayor grado de calidad y fiabilidad.

El esfuerzo realizado por los diferentes organismos que han participado en las fases de diseño, encuestación y captura tiene como uno de sus objetivos prioritarios el de facilitar la información a los usuarios con el menor desfase temporal posible con respecto a la fecha de referencia.

Este primer volumen, siguiendo con las publicaciones iniciadas con los ya lejanos Censos de Población y Viviendas 1981, ofrece los resultados más significativos en cuanto a las cifras poblacionales asociadas a los distintos ámbitos espaciales, haciendo especial hincapié en los espacios más desagregados: entidades de población y secciones censales.

No podemos dejar de agradecer el esfuerzo del personal de los distintos órganos estadísticos, instituciones y empresas participantes, sin cuyo esfuerzo y profesionalidad no hubiese sido posible contar con el mayor caudal de información estadística del que dispone un país: sus censos.

Vitoria-Gasteiz, diciembre de 2002

JOSU IRADI ARRIETA
Director General

AURKEZPENA

Argitalpen honekin 2001eko azaroaren 1eko erreferentzia-data duen Biztanleria eta Etxebizitzen Zentsuak 2001-i dagokion argitalpen serieari hasiera eman dio EUSTATEk.

Eragiketa honetan EUSTATEk parte hartzen du Estatistikako Institutu Nazionalarekin, Foru Aldundiekin eta hiru Lurralde Historikoetako Udalekin batera. Eragiketa hau esfortzu handia eskatzen duen lan-multzo zabala da, informazio deribatu zabal eta konplexua ahalik eta denbora laburrenean eta aldi berean, ahalik eta kalitate- eta fidagarritasun-maila handienarekin jaso behar baita.

Lanaren diseinu, inkestazio eta hartze faseetan parte hartu duten erakundeek egindako esfortzuaren helburu nagusienetakoa honakoa da: erreferentzia datarekiko denbora-desfase txikieneko informazioa eskaintzea erabiltzaileei.

Lehen liburuki honetan, aspaldiko Biztanleria eta Etxebizitzen Zentsuak 1981 argitalpenarekin hasitakoari jarraituz, emaitza esanguratsuenak eskaintzen ditu eremu espazial desberdinei lotutako biztanleria-zifrei dagokionean, espaziorik desagregatuenak nabarmenduz, hots, biztanleria-entitateak eta zentsusekzioak.

Ezin dugu eskertu gabe utzi parte hartu duten estatistika-erakunde, bestelako erakunde eta enpresetako langileen ahalegina, ahalegin eta profesionaltasun horiek gabe ez baikenuke eskura izango herri batek izan dezakeen informazio-iturri handiena: bere zentsuak.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko abendua

JOSU IRADI ARRIETA
Zuzendari nagusia

INDICE

INDICE DE GRÁFICOS Y CUADROS

GRÁFICOS

1. Tasas de Crecimiento Intercensal por Territorios Históricos y para España 1900-2001. (%).	18
2. Evolución de la población por Territorios y Comarcas. 1986-2001. (%).	21
3. Evolución de la población por municipios. 1986-1991.	22
4. Evolución de la población por municipios. 1991-1996.	23
5. Evolución de la población por municipios. 1996-2001.	24
6. Pirámides de la C.A. de Euskadi según censos y padrones. 1900-2001.	26
7. Evolución de la población de menos de 20 años. 1900-2001. (%).	30
8. Evolución de la población de 20 a 64 años. 1900-2001. (%).	30
9. Evolución de la población de 65 y más años. 1900-2001. (%).	30
10. Pirámide de población de la C.A de Euskadi-España. 2001.	32
11. Pirámide de población de la C.A de Euskadi-UE 15. 2001.	32
12. Proporción de la población de menos de 20 años sobre el total. C.A. de Euskadi y países europeos. (%).	32
13. Proporción de población de 60 y más años sobre el total. C.A. de Euskadi y países europeos. (%).	33
14. Proporción de la población de menos de 20 años sobre el total por municipio. 2001. (%).	33
15. Proporción de la población de 65 y más años sobre el total por municipio. 2001. (%).	34
16. Proporción de población extranjera sobre el total por municipio. 2001.(%).	36

CUADROS

1. Evolución de la población de derecho por Territorios Históricos y de su peso en la C.A. de Euskadi y de ésta en España. 1900-2001.	19
2. Evolución de los grandes grupos de edad, de la razón de dependencia y de juventud en la C.A. de Euskadi. 1900-2001.	29

INTRODUCCIÓN

7

DEFINICIONES

9

AURKIBIDEA

GRAFIKO ETA KOADROEN AURKIBIDEA

GRAFIKOAK

1. Zentsu arteko hazkunde-tasak Lurralde Historikoka eta Espainiarentzako 1900-2001. (%).	
2. Biztanleriaren bilakaera herrialdeka eta eskualdeka. 1986-2001. (%).	
3. Biztanleriaren bilakaera udalerrika. 1986-1991.	
4. Biztanleriaren bilakaera udalerrika. 1991-1996.	
5. Biztanleriaren bilakaera udalerrika. 1996-2001.	
6. Euskal AEko piramideak zentsua eta eroldaren arabera. 1900-2001.	
7. 20 urtetik beherako biztanleriaren bilakaera. 1900-2001. (%).	
8. 20tik 64 urtera bitarteko biztanleriaren bilakaera. 1900-2001. (%).	
9. 65 urte eta gehiagoko biztanleriaren bilakaera. 1900-2001. (%).	
10. Euskal AE-Espainiako biztanleriaren piramidea. 2001	
11. Euskal AE-EB 15eko biztanleriaren piramidea. 2001	
12. 20 urtetik beherako biztanleriaren proportzioa guztizkoarekiko. Euskal AE eta herrialde europarrak. (%).	
13. 65 urte eta gehiagoko biztanleriaren proportzioa guztizkoarekiko. Euskal AE eta herrialde europarrak. (%).	
14. 20 urtetik beherako biztanleriaren proportzioa guztizkoarekiko udalerrika. 2001. (%).	
15. 65 urte eta gehiagoko biztanleriaren proportzioa guztizkoarekiko udalerrika. 2001. (%).	
16. Biztanleria atzeritarraren proportzioa guztizkoarekiko udalerrika. 2001.(%).	

KOADROAK

1. Zuzenbidezko biztanleriaren bilakaera Lurralde Historikoka eta bere pisuarena Euskal AEn eta honena Espainian. 1900-2001.	
2. Adin-talde nagusien, mendekotasun-ratioaren eta gaztetasun-ratioaren bilakaera Euskal AEn. 1900-2001.	

SARRERA

DEFINIZIOAK

	Pág/Or	
COMARCALIZACIÓN UTILIZADA	11	ERABILITAKO ESKUALDEKATZEA
ANÁLISIS DE RESULTADOS	15	EMAITZEN ANALISIA
1.- Dinámica de la población de la C.A. de Euskadi en el siglo XX.	17	1.- Euskal AEko biztanleriaren dinamika XX. mendean.
2.- La población y el territorio: evolución 1986-2001.	20	2.- Biztanleria eta lurraldea: bilakaera, 1986-2001.
3.- Evolución de la estructura por edad y sexo 1900-2001.	25	3.- Egituraren bilakaera adin eta sexuka, 1900-2001.
4.- Envejecimiento y territorio.	31	4.- Zahartzea eta lurraldea.
5.- La población extranjera en la C.A. de Euskadi.	35	5.- Euskal AEko biztanleria atzerriarra.
NOTA METODOLÓGICA	36	OHAR METODOLOGIKOA
APÉNDICE ESTADÍSTICO	39	ESTATISTIKA-ERANSKINA
1. Población según el sexo por grupos de edad (a 31/XII/2000).	41	1. Biztanleria sexuaren arabera, adin-taldeei jarraiki (2000/XII/31n).
2. Población según el sexo, grupos de edad, forma de convivencia familiar y nacionalidad.	41	2. Biztanleria sexuaren, adin-taldeen, familia-elkarbitza motaren eta naziotasunaren arabera.
3. Población según el sexo, grupos de edad, forma de convivencia familiar y nacionalidad por comarcas.	42	3. Biztanleria sexuaren, adin-taldeen, familia-elkarbitza motaren eta naziotasunaren arabera eskualdeka.
4. Población según el sexo, grupos de edad, forma de convivencia familiar y nacionalidad por municipios.	43	4. Biztanleria sexuaren, adin-taldeen, familia-elkarbitza motaren eta naziotasunaren arabera udalerrika.
5.1. Población según el sexo, grupos de edad, forma de convivencia familiar y nacionalidad por distritos y secciones censales.	47	5.1. Biztanleria sexuaren, adin-taldeen, familia-elkarbitza motaren eta naziotasunaren arabera, barrutika eta zentsu-sekzioka.
5.2. Población según el sexo, grupos de edad, forma de convivencia familiar y nacionalidad por distritos y secciones censales.	53	5.2. Biztanleria sexuaren, adin-taldeen, familia-elkarbitza motaren eta naziotasunaren arabera, barrutika eta zentsu-sekzioka.
5.3. Población según el sexo, grupos de edad, forma de convivencia familiar y nacionalidad por distritos y secciones censales.	66	5.3. Biztanleria sexuaren, adin-taldeen, familia-elkarbitza motaren eta naziotasunaren arabera, barrutika eta zentsu-sekzioka.
6.1. Población según el sexo, grupos de edad, forma de convivencia familiar y nacionalidad por entidades de población.	86	6.1. Biztanleria sexuaren, adin-taldeen, familia-elkarbitza motaren eta naziotasunaren arabera, biztanleria-entitateka.
6.2. Población según el sexo, grupos de edad, forma de convivencia familiar y nacionalidad por entidades de población.	94	6.2. Biztanleria sexuaren, adin-taldeen, familia-elkarbitza motaren eta naziotasunaren arabera, biztanleria-entitateka.
6.3. Población según el sexo, grupos de edad, forma de convivencia familiar y nacionalidad por entidades de población.	100	6.3. Biztanleria sexuaren, adin-taldeen, familia-elkarbitza motaren eta naziotasunaren arabera, biztanleria-entitateka.
7. Evolución de la población de 1986 a 2001 por territorios.	111	7. Biztanleriaren bilakaera 1986tik 2001era lurraldeka.
8. Evolución de la población de 1986 a 2001 por comarcas.	111	8. Biztanleriaren bilakaera 1986tik 2001era eskualdeka.
9. Evolución de la población de 1986 a 2001 por municipios.	112	9. Biztanleriaren bilakaera 1986tik 2001era udalerrika.

INTRODUCCIÓN

Los Censos de Población y Viviendas 2001 hacen el número 14 de las contabilizaciones poblacionales llevadas a cabo en la C.A. de Euskadi a lo largo del siglo XX. A la serie decenal, a partir de 1975 se le añade la periodicidad quinquenal, dado que desde de la renovación padronal del citado año, se seguirán aprovechando las siguientes para realizar verdaderos censos.

Esta periodicidad, junto con el incremento histórico de la información recogida, han producido una situación envidiable de disponibilidad de información estadística, en un siglo en el que se han producido grandes cambios poblacionales que especialmente han afectado a los territorios de la actual C.A. de Euskadi. Fuertes movimientos migratorios que han supuesto en tan sólo 75 años dos duplicaciones de los efectivos poblacionales, una guerra y posguerra civil que afectaron en mayor medida que en el conjunto español a las generaciones que las padecieron, contrastados cambios en las pautas de fecundidad, etc. De todo ello, incluso de cambios más específicos -evolución de la instrucción, de la capacitación profesional, de la actividad de la población, de los conocimientos y usos lingüísticos, por poner unos ejemplos- han dejado constancia estos 14 grandes recuentos de población.

Conviene precisar que se habla de 'Censos' y no de 'Censo' en singular, ya que realmente y desde 1950 se vienen ejecutando la contabilización de dos unidades diferentes, aunque, lógicamente, con mucho en común. Por un lado la población y por otro las viviendas. Si se recurre a la historia de los recuentos de población se verá como en la mayoría de los casos se contaban fundamentalmente los hogares, 'fuegos' o viviendas, en tanto que unidad económica o fiscal. Esa tradición se pierde con los censos modernos (para considerar uno como tal se exige esa condición) y con las ideas liberales que subrayan el papel del individuo frente al de cualquier otro colectivo.

El hacinamiento secular con sus problemas sanitarios unido a la acentuación de la demanda de vivienda en una época de grandes movimientos de población -éxodo rural- recomendaron a mitad del siglo XX, reiniciar los recuentos de viviendas. A partir de esa época los censos se declinarán en plural y se puede contar con una rica información del hábitat poblacional. Además, y con el tiempo, permitirá añadir una unidad fundamental a los recuentos y elaboraciones censales: la familia.

Este concepto, cada vez más contemplado desde la perspectiva de los grandes recuentos de población, permite una visión nueva de todos los fenómenos que afectan a una sociedad: la movilidad social, lingüística, incluso económica, pueden abordarse cuando se es capaz de contar familias -y por supuesto definir y desentrañar las relaciones que las configuran-. Eso sin olvidar el propio análisis de la estructura y evolución familiar.

Por otro lado resulta conveniente subrayar que, si bien en el año 2000 Eustat junto al Instituto Nacional de Estadística realizaron el Censo de Edificios y Locales, en éste del 2001 se vuelven a contar los edificios y locales, además de recoger alguna de sus características.

SARRERA

Biztanleriaren eta Etxebizitzen Zentsuak 2001, Euskal AEn XX. mendean egindako 14. biztanleria-kontabilizazioak dira. 1975etik aurrera, hamar urtean behingo serieari, bost urtez behingoa gehitu zitzaion, urte horretako errolda-berritzearen ondorengo erroldak benetako zentsuak egiteko aprobetxatzen jarraitzeko.

Periodikotasun horrek eta jasotako informazioaren hazkunde historikoak egoera desiragarria sortu dute eskura dugun estatistika-informazioaren aldetik, egungo Euskal AEnko lurraldeei bereziki eragin dioten biztanleria-aldaketa handiak izan baitira XX. mendean. 75 urtetan biztanleria-efektiboaren bi bikoizte eragin dituzten migrazio-mugimendu handiak, jasan behar izan zuten belaunaldiei estatuko gainerakoei baino neurri handiagoan eragin zieten gerra zibila eta gerraostea, ugalkortasun-arauetako aldaketa kontrastatuak, eta abar. Aldaketa horiek guztiak eta zehatzagoak diren beste batzuk ere (adibidez, eskolatzearen bilakaera, lanbide-trebakuntzarena, biztanleriaren jarduerarena, ezagutza eta erabilera linguistikoena) jasota geratu dira 14 biztanleria-zenbatze handi horietan.

Komeni da zehaztea 'zentsuak' erabili dugula eta ez 'zentsua' singularrean, 1950tik aurrera benetan bi unitate desberdinen kontabilizazioa egin baita, komunak diren alde asko izan arren, jakina. Alde batetik biztanleria eta bestetik etxebizitzak aztertu dira. Biztanleria-zenbatzeen historiara joz gero, ikusiko dugu gehienetan, batez ere, etxeguneak, 'sutondoak' edo etxebizitzak zenbatzen zirela, unitate ekonomiko edo fiskal gisa. Tradizio hori galdu egin da zentsu modernoekin (egun, halakotzat hartzeko baldintza hori eskatzen da) eta norbanakoaren papera beste edonolako kolektiboren aurrean azpimarratzen duten ideia liberalekin.

Pilaketa sekularra bere osasun-arazoekin eta biztanleria-mugimendu handien (nekazari-exodoa) garaiko etxebizitza-eskariaren gehitzearekin, komenigarri egin zen XX. mendearan erdialdean etxebizitzaren zenbatzeari berriro ekitea. Garai horretatik aurrera, zentsuak pluralean deklinatu dira eta biztanleria-habitataren informazio aberatsa dugu. Gainera, denborarekin, zentsu-zenbatze eta elaborazioari oinarritzko beste unitate bat gehitzea ahalbideratu da: familia.

Biztanleriaren zenbatze handien ikuspuntutik gero eta aztertutua den kontzeptu horrek, gizarteari eragiten dioten fenomeno guztien ikuspegi berri bat ahalbideratzen du: mugikortasun sozialari, linguistikoari eta ekonomikoari ere heltzeko aukera dago familiak kontatzeko (eta berau osatzen duten harremanak definitu eta argitzeko, jakina) gai izanez gero. Hori guztia, familiararen egitura eta bilakaeraren analisisa bera ahaztu gabe.

Beste alde batetik, komeni da azpimarratzea 2000. urtean Eustatek INErekin batera Eraikinen eta Lokalen Zentsua egin bazuen ere, 2001eko honetan ere eraikinak eta lokalak zenbatzen direla, beraien ezaugarri batzuk jasotzeaz gain.

En la presente publicación se adelantan los principales datos acerca de la población y sus características básicas: sexo, edad y nacionalidad, a los más bajos niveles de agregación: la entidad de población y la sección censal. A pesar de su carácter de provisionalidad, se ha considerado que dada su calidad, resultaba necesario ofrecerlos cuanto antes a los distintos usuarios.

Además de en el apéndice estadístico, en el análisis de resultados se han añadido apartados que contemplan la evolución de la población en distintos periodos de tiempo; en algunos casos se mantiene la referencia de los últimos 15 años del siglo XX y en otros la del propio siglo.

En este sentido se han recuperado las pirámides de los distintos censos del siglo, a fin de disponer de una visión conjunta, transversal y longitudinal, de uno de los componentes más determinantes del pasado y futuro de una sociedad: su estructura por edad y sexo.

La evolución de la ocupación del territorio por la población centrará otro de los apartados del análisis, teniendo como objetivo la evaluación de las posibles pautas de asentamiento.

Por último se abordará la aportación a la sociedad vasca de un tipo de población que está haciendo variar el volumen, cuando no la composición, de los países de nuestro entorno: los extranjeros.

Argitalpen honetan biztanleriaren eta bere ezaugarrien gaineko datu nagusiak aurreratzen dira: sexua, adina eta naziotasuna agregazio maila baxuenetan: biztanleria-entitate eta zentsu-sekzioan. Behin-behineko izaera izan arren, bere kalitatea kontuan hartuta, erabiltzaileei lehenbailehen eskaintzea derrigorrezkotzat jo da.

Estatistika-eranskinean ez ezik, emaitzen analisisian ere denbora-tarte desberdinetako biztanleriaren bilakaera jasotzen duten atal batzuk gehitu dira; kasu batzuetan XX. mendeko azken 15 urteetako erreferentzia mantentzen da eta beste batzuetan mende honetakoa.

Zentsu honetan, aurreko mendeko zentsu desberdinetako piramideak berreskuratu dira, gizarte baten iraganaren eta geroaren osagai determinatzaileenetako baten zeharkako, baterako eta luzetarako ikuspegia izateagatik. Osagai hori honakoa da: gizartearen egitura adin eta sexuka.

Biztanleriak egindako lurralde-okupazioaren bilakaerak zentratuko du analisiaren beste atal bat, eta horren helburua asentamendu-arau posibleen ebaluazioa da.

Azkenik, gure inguruko herrialdeen bolumena (eta batzuetan osaketa ere bai) aldarazten ari den biztanleria motak, atzerritarrek, euskal gizarteari egindako ekarpenari helduko zaio.

DEFINICIONES

EDAD CUMPLIDA

También llamada edad en años cumplidos. Este concepto de edad es el utilizado de forma más corriente y se refiere al número de años completos que tiene una persona en una fecha concreta; dicho de otra forma, es el número de años que una persona "cumplió" en su último aniversario.

EDAD A 31 DE DICIEMBRE

Este concepto nos permite determinar la edad que una persona nacida en un año cualquiera ha cumplido durante el año de referencia. No tiene por qué corresponderse con la edad cumplida en el momento en que se produce el evento.

ENTIDAD DE POBLACIÓN

Hay que distinguir dos clases de entidades de población:

- a) Entidades singulares. Se considera entidad singular a cualquier parte habitable del término municipal, habitada o excepcionalmente deshabitada, claramente diferenciada dentro del mismo y que es conocida por una denominación específica que la identifica sin posibilidad de confusión.
- b) Entidades colectivas. Se trata de unidades intermedias entre la entidad singular y el municipio, que agrupan a varias entidades singulares.

ESTABLECIMIENTOS COLECTIVOS

Se consideran establecimientos colectivos las viviendas o edificios destinados a ser habitados por personas sometidas a una autoridad o régimen común, dependiente de una institución, económica o no.

Se censaron los que estaban habitados en la fecha de referencia censal.

Se consideran como establecimientos colectivos tanto los establecimientos colectivos propiamente dichos (conventos, cuarteles, asilos, residencias de estudiantes, prisiones, etc.) como los hoteles, pensiones y establecimientos análogos.

FAMILIA

La familia se define como grupo de personas, vinculadas generalmente por lazos de parentesco, ya sean de sangre o políticos, e independientemente de su grado, que hace vida en común, ocupando normalmente la totalidad de una vivienda. Se incluyen en la familia las personas del servicio doméstico que pernoctan en la vivienda y los huéspedes en régimen familiar. En la definición se incluyen, asimismo, las personas que viven solas, como familias unipersonales.

RAZON DE DEPENDENCIA

Cociente entre la población de menos de 20 años y de 65 y más dividida por la población de 20 a 64 años.

DEFINIZIOAK

ADIN BETEA

Betetako urteen adina ere deitzen zaio. Adinaren kontzeptu hau da normalean erabiltzen dena eta data jakin batean pertsonak beteta duen urte-kopuruari egiten dio erreferentzia. Beste era batera esanda, pertsona batek azken urtebetetzean "betetako" urte-kopurua da.

ABENDUAREN 31KO ADINA

Kontzeptu honek edozein urtetan jaiotako pertsona batek erreferentzia-urtean betetako adina zehaztea ahalbideratzen du. Ez dauka zertan bat etorri gertaera izan deneko unean pertsona horrek duen adin betearekin.

BIZTANLERIA-ENTITATEA

Bi biztanleria-entitate mota bereiztu behar dira:

- a) Entitate singularrak. Entitate singularizat hatzen da udal-mugapeko edozein parte bizigarri, biztanleak dituen edo, salbuespen gisa, biztanlerik ez duena, udalaren barruan argiro bereizten dena, eta inolako nahasbiderik gabe identifikatzen duen izen espezifiko batez ezagutzen dena.
- b) Entitate kolektiboak. Entitate singularren eta udalerrriaren arteko unitateak dira, entitate singular zenbait elkartzen dituztenak.

ESTABLEZIMENDU KOLEKTIBOAK

Establezimendu kolektibotzat hartzen ditugu aginte edo arautegi komun baten menpe, erakunde baten menpe, ekonomikoa izan ala ez, bizi diren pertsona-multzoaren etxebizitza edo eraikin-multzoa.

Erroldaren datan jendea zeukaten establezimendu kolektiboak bakarrik sartu ditugu erroldan.

Establezimendu kolektiboaren izenpean, berez establezimendu kolektibo direnak (komentuak, kuartelak, zaharren egoitzak, ikasleen egoitzak, kartzelak eta abar) gehi ostatuak, pentsiok eta antzeko egoitzak sartzen dira.

FAMILIA

Familia pertsona-talde gisa definitzen da, gehienetan ahaidetasun-lokarriz elkarren artean lotuak, hala odolezkoak nola politikoak, eta beren maila kontuan hartu gabe, bizimodu komuna egiten duena, gehienetan etxebizitza osoa betetzen duenari. Familian etxebizitzan gau ematen duten etxe-zerbitzuko pertsonak eta erregimen familiarrean dauden ostariak ere barne sartzen dira. Definizioan, era berean, bakarrik bizi diren pertsonak ere barne sartzen dira, pertsona bakarreko familia moduan.

MENDEKOTASUN-RATIOA

20 urtetik beherako eta 65 urte eta gehiagoko biztanleria zati 20 urtetik 64rako biztanleria.

RAZON DE JUVENTUD

Cociente entre la población de menos de 20 años y la de 65 y más.

RAZON ENTRE SEXOS (Sex ratio)

Cociente de varones entre mujeres.

SECCIÓN Y DISTRITO CENSAL

Es una partición del término municipal caracterizada por:

- estar preferentemente definida mediante límites fácilmente identificables, tales como accidentes naturales del terreno, construcciones de carácter permanente y viales.
- tener un tamaño entre 1.000 y 3.500 residentes, excepto en el caso que el municipio completo tenga una población inferior.

Como resultado de la aplicación de estos criterios en el momento de referencia del Censo el número total de secciones censales era de 1.700 en la Comunidad Autónoma, repartidas en 239, en Álava, 923 en Bizkaia y 538 en Gipuzkoa.

El distrito es una agregación de secciones censales completas decidida por cada Ayuntamiento para su término municipal.

La división en distritos conduce al resultado siguiente:

- C.A. de Euskadi:	348 distritos
- Álava:	56 distritos
- Gipuzkoa:	119 distritos
- Bizkaia:	173 distritos

GAZTERIA-RATIOA

20 beherako biztanleria zati 65 urte eta gehiagoko biztanleria.

SEXUEN ARTEKO RATIOA (Sex ratio-a)

Gizonezkoak zati emakumezkoak.

ZENTSU-SEKZIOA ETA BARRUTIA

Udal-mugapearen partiketa-modu bat da eta honako ezaugarri hauek bereizten dute:

- ondo zehaztuta egotea, erraz bereizten diren mugen bidez, hala nola: lurreko akzidente naturalak, izaera iraunkorreko eraikuntzak edo bideak.
- zuzenbidezko 1.000 eta 3.500 biztanle arteko tamaina edukitzea, non eta udalerrri osoak ez duen biztanle-kopuru txikiagoa.


Irizpide horiek zentsuaren erreferentziako momentuan aplikatzearen ondorioz, zentsu-sekzioen kopuru osoa 1.700ekoa zen gure autonomia-erkidegoan, honela banatuta: 239 Araban, 923 Bizkaian eta 538 Gipuzkoan.

Barrutia, berriz, udal bakoitzak bere udal-mugaperako erabakitako zentsu-sekzio osoen agregazioa.

Barrutikako banaketak ondoko emaitzak ematen dizkigu:

- Euskal AE:	348 barruti
- Araba:	56 barruti
- Gipuzkoa:	119 barruti
- Bizkaia:	173 barruti

ERABILITAKO ESKUALDEKATZEA
COMARCALIZACIÓN UTILIZADA



DONOSTIA-SAN SEBASTIAN: Lurralde Historikoaren hiriburua
Capital de Territorio Histórico


Barakaldo: 30.000 biztanletik gorako udalerriak
Municipios de población superior a 30.000 habitantes

LLODIO: 10.000tik 30.000ra biztanleko udalerriak
Municipios de 10.000 a 30.000 habitantes

Zizurkil: 10.000 biztanletik beherako udalerriak
Municipios de población inferior a 10.000 habitantes.

Sierra Brava de Badaya: Partzuergoak eta herri-lurrak
Parcelaciones y terrenos comunales.

Iturria: Eustat. Euskal Estatistika-Erakundea. 2002
Fuente: Eustat, Instituto Vasco de Estadística. 2002



EMAITZEN ANALISIA
ANÁLISIS DE RESULTADOS

1.- Dinámica de la población de la C.A. de Euskadi en el siglo XX

Con los Censos de Población y Viviendas de 2001 se cierra un ciclo regular de operaciones censales decenales, que comenzó con la de 1900 y que a partir de 1975 pasó a ser quinquenal, al aprovecharse los distintos trabajos de renovación padronal para acortar la periodicidad inicial. Suman en total 14 tomas que suponen la posibilidad de un exhaustivo conocimiento del devenir poblacional del pasado siglo XX.

La propia posibilidad del análisis de las series obtenidas debe servir, además del estudio -lógicamente- de las variables socio-demográficas, para relativizar cualquiera de los fenómenos y evoluciones que se detecten, con el fin de huir de valoraciones precipitadas, sesgadas o dramáticas.

La Historia poblacional del siglo XX en los territorios que configuran la actual C.A. de Euskadi no deja de ser la de un espacio afectado por fuertes movimientos de personas, a la vez que por contrastados comportamientos reproductivos, no muy diferente a la de otros países y regiones que han sufrido rápidos y concentrados procesos de industrialización.

A grandes rasgos se podrían diferenciar cuatro grandes fases en el devenir demográfico de la C.A. de Euskadi de los dos últimos siglos.

Con la duplicación de la población producida entre 1787 -en cuyo censo se contabilizan 308.157 personas- y entre 1900 -602.204- se cierra la primera fase correspondiente al llamado antiguo régimen demográfico. Se caracteriza por tasas de natalidad elevadas y, paralelamente, por fuertes variaciones de la mortalidad produciendo como resultado incrementos moderados de población.

A finales del siglo XIX -el censo de 1887 ofrece unos resultados de 510.596 efectivos poblacionales- se extiende el proceso de industrialización, sobre todo en Bizkaia, comenzando la recepción de flujos migratorios significativos. Esta tendencia va a permanecer hasta el último cuarto del siglo XX.

Si, como se ha dicho, la primera duplicación de la población conocida costó algo más de 100 años, la segunda, que marcaría la segunda gran fase, se produce en los cincuenta primeros años del siglo XX. Las tasas anuales de crecimiento intercensal de los primeros 30 años superan ligeramente el 1% para el conjunto de la C.A. de Euskadi, cayendo al 0,7% en la década de los 30, efecto de la crisis económica y sobre todo de la guerra y posguerra civil.

La evolución no resulta similar para los tres territorios: Álava sólo durante la década de los años 30, en esta segunda fase, consigue superar el 0,5% de crecimiento anual medio, necesitando medio siglo para aumentar su censo en 16.000 personas. Gipuzkoa consigue tasas sólo ligeramente más bajas que Bizkaia, salvo en las décadas de los años 30 y 40, en donde parece que las causas arriba apuntadas tuvieron más repercusión en este territorio histórico: 0,57% y 0,82% respectivamente, mientras que en Gipuzkoa se alcanzaron 0,93% y 1,33%.

En el conjunto español, salvo en la década de los 20 en que se llegó al 1% de crecimiento medio anual, en este período en ningún caso se llega a este porcentaje.

En la tercera fase, que comprendería el tercer cuarto de siglo -1950-1975-, el censo vuelve a duplicarse, pasando del millón largo de personas a poco más de dos millones. Esta fase

1.- Euskal AEko biztanleriaren dinamika XX. mendean

2001eko biztanleriaren eta etxebizitzaren zentsuekin hamar urtean behingo zentsu-eragiketen ohiko zikloa itxi da. 1900. urtekoarekin hasi eta 1975. urtetik aurrera bost urtean behingoa izatera pasatu zen, errolda-berritzeko lanak aprobetxatuz, hasierako periodikotasuna laburtzeko aprobetxatu baitzen. Guztira 14 datu-hartze dira eta joan den XX. mendeko biztanleriaren bilakaeraren ezagutza zehatza izateko aukera ematen digute.

Lortutako serieen analisisa egiteko aukerak berak, aldagai sozio-demografikoen azterketa egiteko ez ezik, aurki daitezkeen edozein fenomeno eta bilakaera erlatibizatzeko ere balio behar du, balorazio arin, partzial edo dramatikoak saihesteko.

Egungo Euskal AE eratu duen XX. mendeko biztanleriaren historia, pertsonen mugimendu handiek eta ugaltze-portaera kontrastatuek eragindako espazio batena da, industrializazio-prozesu kontzentratu eta azkarrak jasan dituzten beste herrialde eta eskualde batzuenetatik ez oso bestelakoa.

Gaingiroki, lau fase handi bereiz daitezke azken bi mendeetako Euskal AEko bilakaera demografikoan.

1787 eta 1900 urteen artean biztanleria bikoiztu egin zen (1787ko zentsuan 308.157 lagun zenbatu ziren eta 1900ekoan 602.204) eta hor ixten da lehenengo fasea, antzinako erregimen demografikoa deritzonari dagokiona. Fase honen ezaugarriak honakoak dira: jaiotza-tasa altuak eta aldi berean, heriotza-tasen aldakuntza handiak. Horien ondorioz, biztanleriaren hazkunde neurritsuak izan ziren.

XX. mendearen bukaeran (1887 zentsuak 510.596 biztanleko emaitzak eskaintzen ditu) industrializazio-prozesua zabaldu zen, batez ere Bizkaian, eta migrazio-fluxu esanguratsuak hartzen hasi zen. Joera hori XX. mendeko azken laurdenera arte mantendu zen.

Esan dugun bezala, ezagutzen den lehenengo biztanleriaren bikoizteak 100 urte baino zerbait gehiago behar izan bazituen ere, bigarrena, bigarren fasea markatu zuena, XX. mendeko lehenengo berrogeita hamar urtetan eman zen. Lehenengo 30 urteetako urteko zentsu arteko hazkunde-tasek %1a pixka batean gaintitzen zuten Euskal AE guztian eta 30eko hamarkadan %0,7ra jaitsi zen, krisi ekonomikoaren eta batez ere, guda eta gudaoste zibilaren eraginez.

Bilakaera ez zen antzekoa izan hiru herrialdeetan: Arabak, bigarren fase honetako 30eko hamarkadan bakarrik, urteko %0,5eko batez besteko hazkunde gaintitu zuen eta mende erdia behar izan zuen bere zentsua 16.000 lagunekin handitzeko. Gipuzkoak Bizkaia baino tasa zertxobait baxuagoak izan zituen, 30 eta 40 urteetako hamarkadetan salbu, eta ematen du aurrerago aipatutako zergatiak eragin handiagoa izan zutela lurralde historiko honetan: %0,57 eta %0,82, hurrenez hurren, eta Gipuzkoak, berriz, %0,93 eta %1,33.

Espainia aldi honetan ez zen inolaz ere ehuneko horietara heldu, 20ko hamarkadan salbu, zeinetan urteko %1eko batez besteko hazkunde izan baitzen.


Mendearen hirugarren laurdena (1950-1975) hartu zuen hirugarren fasean, zentsua berriro bikoiztu zen, milioi pasa lagunetik bi milioi baino zertxobait gehiagora pasatu baitzen. Fase hedakor

expansiva se fundamenta en altos saldos migratorios positivos, así como en incrementos sensibles de las tasa de natalidad. El crecimiento, que puede considerarse explosivo, llega a alcanzar medias anuales del 3% entre 1950 y 1970, bajando al 2% entre 1970 y 1975.

hau migrazio-saldo positibo altuetan eta jaiotza-tasen hazkunde nabarietan oinarritu zen. Apartekotzat har daitekeen hazkundeak, %3ko urteko batez bestekoak lortu zituen 1950 eta 1970 artean eta %2ra jaitsi zen 1970 eta 1975 artean.

Tasas de Crecimiento Intercensal por Territorios Históricos y para España. 1900-2001. (%)

1. Zentsu arteko hazkunde-tasak Lurralde Historikoka eta Espainian. 1900-2001. (%)



Iturria / Fuente: Eustat. BEZV01 / CPV01

Álava vuelve a tener un comportamiento diferente: prácticamente se queda a la mitad del ritmo del resto de territorios en la década de los 50, aunque consigue en esas fechas superar el 1% de crecimiento (1,6% exactamente). En la década de los 60 llega a conseguir el 4% de tasa media anual. Este territorio ganó en esos 10 años 66.000 personas, casi una de cada cuatro de las censadas en 2001. Incluso de 1970 a 1975 mantiene una tasa del 3,52%, cuando Bizkaia bajaba ya al 2% y Gipuzkoa al 1,7%.

Berriro ere Arabak jokabide desberdina du: 50eko hamarkadan, gainerako herrialdeen erritmoaren ia erdian gelditu zen, data horietan %1eko hazkundea gainditzea lortu bazuen ere (%1,6). 60ko hamarkadan %4ko urteko batez besteko tasa lortu zuen. 10 urte horietan 66.000 lagun irabazi zituen, 2001ean zentsu-tako lau lagunetik bat, ia-ia. 1970tik 1975era ere %3,52ko tasa mantendu zuen eta ordurako Bizkaian %2 eta Gipuzkoan %1,7 jaitsi ziren.

En España, sin fuertes variaciones con respecto a décadas anteriores, los crecimientos rondan en todo el período el 1%.

Espainian, aldi guztian, hazkundeak %1 inguruan ibili ziren, aurreko hamarkadetik aldakuntza handirik gabe.

La cuarta y última fase, de carácter constrictivo desde el punto de vista demográfico, se enmarca en su comienzo dentro de un contexto de clara recesión económica -crisis energética, procesos de adecuación y reestructuración industrial-, de sustitución de modelo político -abandono de la dictadura- y de marcado cambio social y cultural.

Laugarren eta azken faseak, ikuspuntu demografikotik izaera mugatzailea izan zuen. Hasieran, atzerapen ekonomiko argia (krisi energetikoa, industria-egokitze eta berregituratze prozesua), eredu politikoaren aldaketa (diktadura utzi zen) eta gizarte eta kultura alorreko aldaketa handiek markatutako testuinguruan kokatu zen.

Este período, identificado como de 'crisis demográfica', da por finalizada la tendencia poblacional expansiva de prácticamente los últimos 200 años. A su vez, se aproximan las pautas demográficas a las que ya se venían dando en el conjunto europeo: masiva utilización de técnicas contraceptivas, fuerte caída de la mortalidad infantil, aumento de la esperanza de vida, etc.

"Demografía-krisi" gisa identifikatzen den aldi honek bukaera eman zion ia azken 200 urtetako biztanleriaren joera hedakorriari. Era berean, demografía-ereduak Europako multzoak zituen hurbildu ziren: kontrazepziozko tekniken erabilera masiboa, umeen heriotza-tasen jaitsiera handia, bizi-itxaropena haztea, eta abar.

Aunque en los últimos cinco años de la década de los 70 aún se crece a un ritmo del 0,66% (Álava hasta el 1,66%), a partir de 1981 las pérdidas poblacionales van a ser un hecho en las cuatro grandes operaciones de contabilización poblacional: 1986, 1991, 1996 y 2001.

70eko hamarkadako azken bost urteetaraino %0,66ko erritmora heldu arte hazi bazen ere (Araba %1,66raino), 1981etik aurrera biztanleria-galerak izan ziren biztanleria-zenbatzeko lau eragiketa handietan: 1986, 1991, 1996 eta 2001.

En esta fase se pierden 59.000 personas (un 2,8% del total de 1981), saldo que resulta de la disminución de 66.000 habitantes de Bizkaia, 21.000 de Gipuzkoa y del incremento de 28.000 en Álava.

El quinquenio 1986-1991 destaca por sus decrementos superiores: un -0,41% en Bizkaia y un -0,37% en Gipuzkoa. En el siguiente parece darse una estabilización de la población, en parte debido al incremento de la población alavesa. En los últimos cinco años se produce una ligera aceleración de las pérdidas: -0,15% para la C.A. de Euskadi, -0,31% en Bizkaia, -0,08% en Gipuzkoa y un 0,32% positivo en Álava.

